

Sansonarriren kondaira Azkoako Santa Katalina baselizako irudi batean

KOLDO COLOMO CASTRO

Izena duen guztia omen da.

MOTIBAZIOA

Munduko beste mitologia batzuetan ez bezala, euskal mitologia oso bakan gutxitan irudikatua izan da eta ezagutzen ditugun irudikapen gehienak XX. mendekoak dira. Hainbat artista gure mitologia irudikatuzera ausartu dira Nestor Basterretxea edo Angel Elvira mendabiatarra besteak beste. Beraz, Euskal Herriko artean euskal mitologiaren aztarnak atzematea oso lan zaila dugu.

Badirudi herri honek ez zuela sinismen paganoen irudikatu beharra. Izan ere gure mitologiaz ezagutzen dugun guztia ahozko transmisioaren bidez heldu zaigu. XX. mendean Barandiaranek eta beste aditu batzuek egindako lanari esker mitologian dagoen herri jakinduria sistematizatu eta zabaldu zen.

Oro har artearen esanahaia atzemateko tenorean adituen jokaerek ez dute euskal mitologia aintzat hartzen. Aitzitik Nafarroan salbuespen aipagarri bat ezagutzen dugu. Orba ibarreko Eristaingo elizan aurkituriko margoen kasua deigarria izan zen. Bartzelonako Unibertsitateko erromaniko eta Erdi Aroko artean bi adituk zaharberritu zuten gizon iletsuaren irudiari “Basajaun” izena jarri zioten. Egia da ezin dugula jakin Basajaun den ala ez. Interpretazioak beti kritikapean daude, bai eta kasu honetan ere. Artearen interpretazioan asmatzea anitzetan oso zaila suertatzen da, are gehiago denboran urrun badago erromanikoa bezala. Gure kasuan euskal mitologiak irudien esanahiak argitzen lagun gaitzakeelakoan gaude, azken finean garai hartako herritarren sinismenak eta mundua ulertzeko erak baino ez dira.

Hurrengo lerroetan Azkoako Erdi Aroko zuburu bateko irudi erromani-koa eta barnean duen izkribua argitzen saiatuko gara euskal kulturak ematen digun laguntzari esker. Dena dela argi dugu artikulu honetan esaten duguna hipotesi hutsa dela eta orain arte aditu batzuek emandako interpretazioari ekarpen osagarri xumea baino ez diogula eman nahi.



Deierri ibarra eta Azkoa herriaren hizkuntza egoera Erdi Aroan. Irudia hartuta: Euskaltzaindia (1977) El libro blanco del euskera. 138 orr

AZKOAKO ELIZA

Azkoako eliza Deierriko ibarrean dago, garai batean Ziriza izeneko herria zegoen tokian. Egun Ziriza desagertuta dago erabat eta basiliza erromanikoa da geratzen den eraikin bakarra.

XII. mende amaieran eraikia Santa Catalina basilizak lan eskultoriko deiagarria du. Teilatupean dauden irudiak Armentia, Lizarrako San Migel elizan eta Iratxeako monastegian agertzen diren irudiekin lotura argia dute oso antzekoak baitira. Izan ere adituen ustez zonalde honetaraino Siloseko eraginak heldu ziren, 1200 estilo delakoa. Honetaz gain estilo honetako irudiak inguruko herrietan ikus daitezke, Lezaunen eta Egiarten kasu.

Santa Catalina baselizako lan eskultorikoari erreparatuz gero bi maisu baino gehiagok parte hartu zutela esan daiteke, irudietan lan kalitate ezberdinak baitaude. Dena dela goi mailako harginek lan egin zuten landako baseliza honetan eta agian, bertan aritu izanaren zergatiak harrobian egon daitezke. Eraikin osoa kalitate handiko harriekin egina dago. Izan ere oraindik egun jarrita dauden harrien egoerari begiratu baina ez diogu egin behar harriaren kalitateaz ohartzeko. Beharbada harrobi ona gertu izateak hargin tailer trebatuak erakarri zituen, harri hoberenaz probesteko asmoz. Jakin badakigu harrobiaren kokapena Ziriza eta Azkoa artean kokaturik zegoela eta 1285. urtetik aitzina Iratxeko monastegiaren esku zegoela.



Azkoainko Santa Catalina baselizako iparraldeko aldekoa udaberrian. Gibelean Azkoain herria

TEILATUPEKO IRUDIAK

Baseliza nahiko xumea bada ere teilatupeko zuburu gehienak lan maila handikoak dira. Irudien taldea hobeki ulertzeko elizan azaltzen diren irudiak aipatuko ditugu hurrengo lerroetan. Bi talde nagusi ditugu: animaliak eta gizakiak.

Animalien artean daude lehoi oldarkorak, lehoia ahoa zabalik, herensuge hegalduna, zezen burua, katu bat arratoia atzaparretan, txakur bat belarrian hazka egiten, dromedarioa, aker baten soina, ardi baten soina (beste bartzuen ustez errinozeroa) eta akerra harpa jotzen beste animalia batekin dantzatzen. Gizakien aldetik daude gizon bat iseka egiten, juglarea edo moriskoa bi adarreko txanoduna, ama birjina bere semearekin, emakume lizuna eta gizon burusoila. Honetaz gain absidedeko lehiatilan bi zaldunen arteko borroka eta erdian emakume bat otoitz egiteko itxurarekin irudikatuta daude.

Azkenik gogoratu behar da elizako horma batzuk erabat zaharberriturik daudela eta agian teiltupeko irudien bidez harginek eman nahi izan zuten irakaspen osoa betiko galdu dugu.



Azkoako baselizako Zuburu batzuen irudiak.

SANSO HARRIA

Hegoaldera so eta baselizako absidearen amaierako teilatupeko zuburu batean irudi berezi bat agertzen zaigu. Gizon heldua da, bizarduna eta burusoila, buruaren atzeko aldean apaingarri moduan landareak ditu eta eskuineko eskuko hatz batekin keinu berezia egiten digu eskuineko begia zabaldu eta erakutsiz. Ezkerreko eskuan idatzi deigarri eta ezohikoa duen esfera bat darama SANSO HARRIA inskripzioarekin.

Honen harira Biurrun i Sotilek¹ eliza eraiki zuen harginaren sinadura izan litekeela proposatu zuen Iratxeko antzeko irudi bat adibide harturik. Iratxen harginaren autoerreturua azaltzen zaigu eta nor den jakitea oso erreza da, harginen lan tresna daraman gizon baten irudia delako. Gogoratu behar dugu Iratxe eta Azkoako harginak tailer berekoak edo pertsona berberak izan zitezkeela, estiloan eta zuburuetakoa irudietan islatzen den bezala. Ildo beretik doaz Aceldegui Apestegui Atlas del Romanico de Navarra liburuko artikulua egilea, Ruiz Martirena Gran enciclopedia Navarran, Garcia Gainza Catalogo Monumental de Navarraren egilea eta idazkiari buruz ez bai batzuekin www.romanicoenavarra.info web orriko Azkoako baselizari buruzko artikulua egin zuen kolaboratzailea².

Hipotesi honen aurka bi argudio erabiliak izan dira. Alde batetik Biurrun i Sotilek gaizki egin zuen izenaren irakurmena, Sancho Garcia idatzita zegoela esan baitzuen, baina benetan zizelkaturik dagoena SANSO HARRIA da. Beste aldetik Fernandez Ladredak esandakoa gogora ekarri nahi dugu³, Iratxeko irudiaren esanahia argi badago ere hemen dugun esfera ezin dugu hartu harginen lanabesatzat. Beraz kasu honetan irudia lanabesaren bidez ez dago identifikatzerik.

Ruiz Maldonadok⁴ beste teoria bat proposatzen du. Irudiak hatzamarrak egiten duen keinu deigarriari erreparatuz Sanson izan daitekeela dio. Horrela Fernandez Ladredak ulertzen du begia zabalduz itsu dagoela erakutsi nahi digula. Honetaz gain eskuan duen esferak Sansonen historiaz hitz egiten digu nonbait. Izan ere erraldoiitsuak zigor legez kateatu zuten errotako harriari eusteko.

Boto⁵ ere iritzi berekoa da eta Sansonen irudiaren aurrean gaudela dio. Hala ere Fernandez Ladredak afera honetan sakonduz, Ruiz Maldonado eta Botoren hipotesiak kolokan jar ditzakeen bi argudio azaltzen ditu. Lehenengo da Sansonen presentzia ez dela ongi ulertzen dagoen zuburuetakoa animalien kontestuan eta bigarrena, zuburu guztien artean izkribudun bakarra dela honen zergatia galdetuz⁶. Dena dela Fernandez Ladredaren ustez argitzeko bide bakarra izan liteke idazkiaren irakurmen zuzena egitea.

¹ BIURRUN I SOTIL (1936), orr. 52-53.

² *Enciclopedia del románico* (2008), ACELDEGUI, A., "Azcona", orr. 293 // *Gran Enciclopedia Navarra*, (1990) "Azcona", orr. 205 // GARCIA GAINZA eta beste batzuk (1996), *Catalogo monumental de Navarra*, "Yerri", orr. 687 // www.romanicoenavarra.info, Azkona.

³ FERNÁNDEZ LADREDA (2000), orr. 351-352 eta 393.

⁴ RUIZ MALDONADO (2000), orr. 328.

⁵ BOTO VARELA, G (2000), orr. 277-278.

⁶ FERNÁNDEZ LADREDA (2002), orr. 393.



Sanso harriaren zuburua

SANSONARRIAREN HIPOTESIA

Boto eta Ruiz Maldonadok emaniko Sansonen interpretaziotik haratago joatea gustatuko litzaiguke. Haiiek proposaturiko esanahiarekin bat gatoz, alabaina gure ustez, adituek ez dute izkribua euskal kulturaren argitan interpretatu. Ikus dezagun zer dugun.

Idazkia gertutik ikusteko iskailera batera igo ginen teilatupeko zuburu izkribuduna ikuskatzeko. Duda izpirik gabe goiko lerroan SANSO hitza agertzen zaigu eta bigarreanean HARRIA, argazkian ikus daitekeen bezala. Bigarren hitzak interpretazio arazotxo batzuk ekar litzake. Bigarren –r-aren estiloa era ezberdin batean egina baitago, bihurriago, eta ez da lehenengo –r-a bezalakoa. Hurrengo hizkia I-ak ere antzeko moduan egina dago. Zaila da pentsatzea bigarren r-a beste hizki bat dela eta grafiari begiratuta ongi doa-

kion hizki bakarra r-a delakoan gaude. H-a hizki xumez idatzita dago, gure ustez aski modu argian. Harginen idazkeran honelako jokaerak gertatzea normalizat har ditzakegu.

Hizkien irakurmena honela utzita goazen hitzen analisisa egitera. Erdi aroan Sanso izena hagitz arrunta zen eta izen honetatik hainbat eratorri ditugu Antso, Antxo, Santxo⁷ guztiak izen bera izanik. Gure hipotesiarekin bat ez datorrena, bederen itxuraz, izena da. Sanso ez da bibliako izena Sanson baizik, baina kontuan hartu behar dugu izen konposatu baten aitzinean gaudela, hemen irudikatzen den mitoa sansonarriarena baita, hots, geroxeago azalduko dugunez, sansonen harria. Honetaz gain kontuan izan behar dugu garai hartako harginek ez zekitelako idazten ezta irakurtzen ere eta, gehienetan, kopia egiten zutela. “hARRIA” hitzak zer esan nahi duen argi dago eta idatzita dagoen esfera kontuan hartuz gero berehala pentsa dezakegu esfera bera dela harria. Erdi aroko euskaran h-ren presentzia nahiko arrunta zen. Adibidez, Nafarroa Garaian erabilera XI. mendera arte ematen da eta Araban, Errioxan eta Bizkaian, nonbait, XVI. mendera arte iraun zuen h-ren erabilera⁸. Dena dela eta hargina Pirinioz beste aldeko euskalduna izana, hots Iparraldekoa, h-z idaztearen beste azalpen bat izan liteke. Harginen jatorria Pirinioz beste aldekoa izatea ez da oso arraroa, erromanikoaren korrante nagusiak Pirinioz beste aldetik etorri baitziren.

Azkenik (bitxitasun bat erantsi nahiko genuke) idazkia zizelkaturik dagoen harri esferikoak egungo harrijasotzaileek altxatzen dituzten harrien antza duela. Izan ere harri esferikoa Sansonen harria baino ez da.



Goiko lerroan ikusten diren izkiak; SAN Beheko lerroan: hA

⁷ GORROTXATEGI NIETO, M. (1998), orr. 244.

⁸ VILLASANTE, Luis (1980), orr. 8, 36-39. H-a aspiratua Euskal Herri osoan presente zegoen. Aragoiko erromantzearen ondorioz galdu zen, hasieran Nafarroa Garaian eta gero, XVI. mendean, Araban, Errioxan eta Bizkaian. Hala ere eta dakigunez Iparraldean mantendu zen.



Gertuko argazkia. SANSO HARRIA

SANSONARRIAREN KONDAIRA

Aurre historiako trikuharri eta monolitoen presentzia, mendi eta arkaitzen itxura bitxia edota gora-behera geografiko bereziak azaltzeko hainbat kondaira asmatu zituzten arbasoek. Batzuetan gizakiak harri bihurturik geratzen ziren. Besteetan harrien itxurak azaltzeko mitologiako eta historiako hainbat erraldoi agertzen zaizkigu. Euskal Herrian Sanson, Errolan eta Jentilak ezagunenetarikoak ditugu. Europan ere antzeko erraldoiak aurkitzen ditugu Esviatogor eta Batras (Errusia), Macmahon (Irlanda), Mouros (Galicia). Haietako batzuk ere erraldoi harri jaurtitzaitaileak dira. Erraldoiengan sinismena greziatarren kultura aurkitzen dugu eta munduko hainbat tokitan antzinean erraldoiak bizi zirela sinisten da⁹.

Bibliak Sansonen historia kontatzen digu¹⁰. Judutarra eta fededuna filisteoen zigortzailea zen Sanson azken epailea. Filistarrek Sanson kontrolpean hartzeko Dalilaren azpikeriez baliatu ziren. Azkenik bere itzelezko indarraren iturria atzematen eta ilea moztu zioten. Ondoren begiak itsutu eta errotako harriari eustera zigortu zuten. Historiaren amaiera Sansonek mendekua hartzen du ehunka filistar hiltzen dituelarik etxe baten zutabeak suntsitzearen ondorioz.

⁹ MARTOS NUÑEZ, E. (2001), orr. 108-114. Ikusi ere BRIGGS, Catherine (1995), orr. 142 eta Máximo IZZI, orr. 202-205. Suediako mitologian ere erraldoi harri jaurtitzaitaileak azaltzen dira. Danamarkako historialaria Saxo Grammaticusen ustez (1150-1220) erraldoiak ziren trijuharrien eraikitzaileak.

¹⁰ Biblia. Epaileak 13-15. Erdi Aroan musulmanei ere deitzen zieten Filisteoak eta Kaldeoak (ALVAREZ PEÑA 2004, orr. 128). Interesgarria izan daiteke ikertzea ea Sansonen mitoak nolabait ere, musulmanen aurkako borrokarekin zerikusia ote zuen.

Euskal kondairak dioen bezala Sansonek harri erraldoiak jaurtitzen ditu. Horren ondorioz mendiek itxura bitxiak hartzen zituzten. Honetaz gain gizakien kalterako gaiztakeriak ere egiten ditu, esaterako harri erraldoi batekin herriak suntsitzen saiatzea. Horrela egon zen gertatzeaz Hendaian, Oiartzunen, Aranon eta Donostian. Hala ere Sansonen asmoak ez ziren gauzatu eta harria jaurtitzerakoan hanken irristaketaren bat gertatu zen behi edo ardi gorotzen bat zapaltzeagatik, jaurtiketan kale eginez. Irriaketaren ondorioz harri erraldoia beste toki batean erortzen zen, toki hartan geratuz Sansonen gaiztakerien leku-moduan. Batzuetan Sansonek habailaz jaurtitzen zituen harriak. Harri esferikoak Sanson eta jentilen kondairetan aurki ditzakegu, azken erraldoi hauek boloetan edo pilotan jolastean¹¹. Sansonek eta beste erraldoiek jaurtiriko harriak menhireak, harkaitz bereziak eta harri landuak izaten dira.



Hendaiako Ondarraitzeko harkaitzak, Sansonek botatakoak. Beste kondaira batzuek Errolani egotzi diote jaurtiketa egitea. Aldiz, beste kondaira batzuen arabera Hendaia zaharraren urpeko aztarnak dira.

MENDIKO ERRALDOIAK: HARRI JAURTITZAIILEEN KONDAIREN ZABALPENA.

Euskal mitologiako erraldoiek botatako harriak Jentillarriak, Errolanarriak eta Sansonarriak dira. Honela jaso zuen Jose Miguel Barandiaranek XX. mende hasieran euskal mitologiari buruz egindako ikerlan oparo eta erraldoian. Batzuetan kondairak nahasten dira eta jaurtiketaren arduraduna aldatzen da. Adibidez, Hendaiako Ondarraitzeko arkaitzak Sansonek bota omen zituen baina beste toki batzuetako tradizioen arabera Jentilak izan ziren horren arduradunak.

Kondairetan Sanson harri jaurtitzaiilea azaltzen zaigu beti. Alabaina Errolan eta Jentilen istorioek botatako harriekin lotura dute batzuetan, ordea beste batzuetan kondaira, leize, meategi, eliza, etxe edo gora-behera geografiko bati atxikiturik azaltzen zaizkigu (lehioa, lautada, jauzia...).

Nahiz eta artikuloren helburua kondairen zabalpena ez izan, distribuzio geografikora hurbilduko gara, hobeki ulertzeko zer nolako eragina izan zuten harri jaurtitzaiileen kondairek Euskal Herrian eta Piriniotako kulturaren oro har. Mapak ere kondairen antzintasuna ulertzen lagunduko digutelakoan gaude.

¹¹ Kondairetan harri esferikoaren presentzia baieztatzen da. Adibidez Aizkorri mendian Sansonek habail batez baliatu zen Donostia suntsitzen saiatzeko. Urnietan ere aballarri izeneko harria dugu. Zestoan Sansonek botatako harri obalatu dago. Errolanek ere habailaz bota zuen hainbat harri eta jentilek hainbatetan boloetan eta pilotan jolasten agertzen dira Urdiain, Ataun... Harri loturik beste gai interesgarri bat dugu. *Anton Erkoreka-k* (1995) erraldoiek botatako harrietan utzitako aztarnak aztertu ditu eta *Xavier Peñalverren* (1983) artikuloa ere argigarria da gai honetaz. Sansonen oinen aztarnak ditugu Martikola mendian Ezkurra (Nafarroan). Errolanen eta Jentilen aztarnak ere ikus daitezke Euskal Herriko hainbat herritan *Antón Erkoreka* (1995).

Jentilen kondairak Euskal Herriko erdi eta mendebaldeko eremu zabala hartzen du, Euskal kulturaren mugetatik haratago irten gabe. Jose Duesoren arabera¹² kristautasunaren etorrerarekin batera bibliako pertsonai batzuek, edota pertsonaia kristaua eta historikoeak, antzinako izaki erraldoi magikoen papera ordezkari zezaketen, gure kasuan Jentilak Sanson bihurtu zitezkeen. J. I. Hartsuagak Europa mailan egindako lan konparatiboan mugimendu megalitikoaren garaian kokatzen du jentilen kondairaren sorrera harekin lotura zuzena dagoela erakutsiz¹³. Aldiz, J. M. Satrustegiren¹⁴ iritzi jentilarriaren kondairen oinarriak XIII. mendean egon litezke, bederen kasu batzuetan, nafarrak eta gipuzkoarren arteko gatazketan oinarria izanik. Izan ere konkistatzaileak gipuzkoarrez baliatu ziren Nafarroako erresuma emeki-emeki suntsitzeko. Dakigunez Jentilarrien kondairaren zabalpen geografikoa Euskal Herri mugatzen da eta harri jaurtiketekin lotura izan ez ezik trikuharri, etxe, zubi, meategi eta leize sorrerarekin ere zerikusia dauka.

Zabalpenaren harira ez da gauza bera jazotzen Errolan eta Sansonen harri jaurtitzailen kondairekin, bi hauek Euskal Herrian egoteaz gain Pirinioan zehar sakabanatzen baitira (Ikusi mapa 1). Sansonarriaren kondairaren zabalpen geografikoa Gipuzkoa, Nafarroa, Errioxako Kalahorra, Lapurdi, Ariègen eta Kantabria eta Palentzia arteko mugan barreiatzen da. Kondaira Euskal Herrian duen kokapena erdiko zonaldean dago. Arestian esan dugun bezala Sansonen kondairak edozein tokitan izanda ere beti harri jaurtiketaz mintzatzen da. Horrela gertatzen da Euskal Herrian, Palentzian eta Ariègen.

Errolanen kasuan kondaira ezberdinak aurkitzen ditugu, batzuetan botatako harriekin lotura dute. Berriz beste batzuetan ekintza heroiko eta gogoangarriak dira, esaterako, zaldiz emandako jauzi ikaragarria (Aragoi), Errolanen heriotza (Nafarroa, Aragoi), Ferragut erraldoiaren aurkako borroka (Errioxa, Nafarroa), musulmanen eskuetan dauden emakume gatibuak askatzeko saiakera (Galiza), arkaitzei Durandarte ezpataz emandako zartako ikaragarriak (Aragoi) edota gora-behera geografiko baten sorrera azaltzeko (Nafarroa, Katalunia, Ariège, ekialdeko pirinioetan, Galiza). Agerian denez Errolanen kondaira Europar egoteaz gain Aragoi, Katalunia eta Frantziako hegoaldean jaso izan da eta katalanier herrialdeetako hegoalderaino, Benidorm eta Murziako Cartagenaraino, heltzen da gora-behera geografikoak aipatuz (Ikusi mapa 2). Euskal Herrian Errolanen presentzia ekialdean kokatzen da.

Erraldioen kondairen zabalpen geografikoa laburbilduz esan dezakegu argi geratzen dela beste garai batean Pirinioan amankomuneko kultura bat zela eta errealitate hau Errolan eta Sansonen kondairetan argi islatzen dela. Jentilak, berriz, beti Euskal Herriko muga barnean daude (Ikusi mapa 3).

Izaeraren aldetik Jentilak oro har, onak dira, pasarte batzuetan gaiztake-riak egiten dituzten arren. Sanson gaizkile agertzen zaigu eta Errolan, jaurtiriko harriekin loturik agertzen denean, pertsonai gaiztoa agertzen zaigu. Hau bereziki Euskal Herrian jazotzen da, Orreagan gertaturikoagatik mendekari


¹² José DUESO (2000), orr. 54-55.

¹³ J. I. HARTSUAGA (2004), orr. 270-282. Europako jentilen akaberari buruzko elezaharrak aztertu ostean hipotesi moduan dio Europako trikuharrein presentziak lotura duela Jentilen kondaira hauekin, biak garaikideak izan zitezkeela esanez.

¹⁴ J. M. SATRUSTEGI (1980), orr. 96-102. Satrustegik egin zituen aurkikuntzen inguruan gehiago jakin nahi izanez gero aldizkari honetara jo: *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, urtea V, zenbakia 13, (urtarrila-apirila 1973).

gisa agertuz. Euskal Herritik at gora-behera geografikoekin lotura du eta heroi gisa deskribatzen zaio agian Orregako porrota txikiago egiteko asmoz.

Artikulo honetan ez ditugu aztertu Mairuen kondairak “Mairu, Mairi, Maide, Moros (gaztelera)”. Iberiar penintsulan zabaldua duade (Galiza, Asturias, Kantabria, Euskal Herria, Aragoi...). Barandiaranen esanetan trikuharrri eta gaztelu eraikitzaileak ziren. Jentilak eta mairuak antzekoak dira azken finean pertsonai berberak baitira. Nafarroa Beherean Mairiak eta Mairuak arras ezagunak dira. Nafarroako iparraldean ere nahiko zabaldua daude Mairuak hegoaldeetik Artaxoara helduz. Nafarroako hegoaldean, erriberan, moroen presentzia arras nabarmena da. Erronalek berak Mairiak erbesteratu zituen Zuberoatik. Alabaina izaki hauen artean harri jaurtitzaille kasu bakarra ezagutzen dugu. Hain zuzen ere J.M. Satrustegik jasotako kondairaren arabera Moro batek Uxuetik bota zuen Murilloko harria. Hala ere beste kondairetan harria jaurtitzea Sansoni leporatzen zaio. Dena dela zabaldua geratzen dira distribuzioen mapak etorkizuneko aurkikuntza eta ikerlan gehiagorekin osatzeko, gai hauetaz sakonduz.



Mapa 1: Piriniotako Sansonarriren kondairaren zabalpena. Maparen iturri bibliografikoak¹⁵

¹⁵ Sansonarrria mapa:

Azkoa (Sanso harria) **Colomo** (2009). Segura (Sansonek botatako harriak), Zegama-Segura (Arrabiolako sansonarrria. Harekin Donostia hiria suntsitu nahi izan zuen), Aralar, Tolosa, Urnieta (Aballarri, Sansonek habailaz botatako harria), Usurbil, Oiartzun, Hendaia (Ondarraitzeko harkaitzak), Lezaun, Ibiriku (Sansonarriak), Eratsun (Iruñarria) **Barandiaran** (1997), orr. 313-316. Azkain (Sansonen arroka), Zestoa (Sansonarria) **Barandiaran** (2003) orr. 181-182. Ezkurra (Sansonen oinak) **Antón Erkoreka** (1995) Abartzuza, Lezaun eta Ibiriku **Argandoña** (1994) orr. 84-85. Murillo del Cuende. **J. M. Satrustegi** (1980) orr. 98. Kalahorra **Martinez San Celedonio** (1978). Aia (Sansonarria), Hernani (Sansonarria) (**Euskadi.net**).

* Maparako ez dugu kontuan hartu: Izabako “Borda de Sanson” ez dakigulako harreman zuzena duenentz gure gaiarekin. (Nafarroako toponimia), Villabonako Sanson baserria, Bilarreko La Sansona (**Euskadi.net**).

Berezitasun bat azpimarratu nahiko genuke. Euskaraz monolitoak aipatzeko menhir edo iruñarri hitzak erabiltzen dira (**Elhuyar hiztegia**). Sansonek erabili zuen Eratsungo harria **Iruñarria** da.

-*Sansonen kondaira Piriniotan*

1-Palencia eta Kantabriako Valdeolako “Piedra de Sanson”. <http://es.geocities.com/reinosilla/docs/menhires.htm> 2-Sansonek jaurtiriko harriak Belbeze (Comminges), 3-Sabarat (Ariège), 4-Le Mas d’Azil (Ariège), 5-Sem (Ariège) **Marliave** (1995) orr. 153.

*Aragoiko mitologian artikulo honen erraldioen antza duen erraldoi harri jaurtitzaille bat aurkitu dugu. *Ome granizo del Turbón* da eta Turbón mendian (Bardaxi) bizi omen da. Herri bateko jende guztia hil zuen bi harri botata. Bi harriak bizirik zeuden eta elkarri hitz egiten omen zioten. **Chema Gutierrez** (1999) orr. 140. Kantabriako moroek Vendejo herri ondoan zegoen herri bateko biztanleak harrikatzen omen zizuten. Azkenik herritar gaixok herritik alde egin zuten eta Vendejora joan ziren babes bila. **Alvarez Peña** (2006) orr. 41. **Celso A. Lara Figueroak** “Cuentos populares de bandidos mágicos de Guatemala” liburuan Pedro Urdemalésen ekintza gogoangarrien istorietan Sanson harri jaurtitzaille bat azaltzen zaigu.



Mapa 2: Errolanen kondaira eta toponimiaren zabalpena Piriniotan. Maparen iturri bibliografikoak¹⁶

¹⁶ Errolan mapa:

-Errolanarria:

Zalba, Urrotz (Harrian Errolanen hatzen aztarnak omen ditu), Erratzu (Harria), Madoz Aralar aldean (Harriak Errolanen hatzen aztarnak ditu), Leitza (Errolan Leizeko sarrerako harria. Bertan habailaren aztarnak daude), Donaixti Baxe Nafarroa (Arrolan-harria), Behorlegi (Errolanen harria), Zuberoko Magdalena mendia, Ligi, Etxebarre, Lakarri (Arrola'en botxia). Itxasu (Erraldoiaren ukabilkada dauka). **Barandiaran (2003)** orr. 63-64; 182. Xabier (Errolanek Piriniotatik botatako bi harri), Eratsun (Iruñarri), Ezkurra. **Barandiaran (1997)** orr. 312-316. Uharte Arakil (Errolanarri) **Nafarroako toponimia ofiziala.**


-Harriak ez direnak. Euskal Herriko beste gora-behera geografiko batzuk Errolan izenarekin:

Orreaga (Cruz de Roldan, Errolanen gurutzea, Errolanen iturria), Erro (Paso de Roldan, Plana de Roldan), Lerín (Plana de Roldan), Karkar (Valderoldan), Baztan (Errolanen harriak), Leitza (Errolanleizea), Luzaide (Errolansoropila), Tuterá (Camino de la Roldana, Vallaroldan). **Nafarroako toponimia ofiziala.**

*Ez dugu kontuan hartu Errolanekin harreman argia ikusten ez genuelako: Galar (Borda de Roldan), Iza (Errolatz) **Nafarroako toponimia ofiziala.**

-Piriniotako Errolanen zabalpena eta beste toki batzuetakoak:

Ordesako "Brecha de Roldán", Hueska, "Salto de Roldán" **Gutierrez Lera (1999)** orr. 36, 47-48, 79, 159-160. Banyeres de Bigorra (Gaskuña), Maçanet de Cabrenys (Vara de Rotllà), Esterri d'Aneu (Pallars Jussà, Mall de Rotllà), Arles del Tec (Vallespir, Abrevador del cavall de Rotllà) Montner (Vallespir, Mastra de Rotllà), Val del Tec (caixa de Rotllà), Sureda (Vallespir, Retja de Rotllà), Costa Brava (Roques de Rotllà, Cap Norfeu, Illes Medes, Es Cucurucuc, Cadaquès), Pirineus Palets o Pedres de Rotllà, megàlits. Ikusi mapa: (www.mitcat.net/gegants/index.htm). Luzenac, Ariège. Errolanen hilobia leize batean. **Marliave (1995)** orr. 145-147. Bielsa (Feixon d'el Rol, Fuen d'el Roldá,



Mapa 3: Erraldoi harri jaurtitzailak, Sanson, Errolan eta Jentilen kondaira eta toponimoen zabalpena Euskal Herrian. Iturri bibliografikoak¹⁷

Penna el Roldán, Punta el Roldán) (**Toponimia aragonesa** “Roldán”). Aragoiko Fuendecalderas eta Liso herrien sorreran “Rondan” en kondaira dago, ziurrenik lotura dauka gure Errolan erraldoiarekin. (Gutierrez Lera 1999 orr. 153). Adibidez, Amador Jiménez, Fabian (2008) liburuan Errolani Rondan deitzen diote.

Honetaz gain Errolanen kondaira Pirinioetatik haratago zabaltzen da Batik bat Frantzia eta Alemanian ziurrenik “La chanson de Roldán” erdi aroko olerkiari esker. Galizan kondaira mordo bat azaltzen zigu. Alvarez Peñaren (2004) iritziz kondairen sorrera Asturiaseko Alfontso II eta Karlaundi arteko harremanetatik dator (742-814). Galizan dauden kondairen artean: petroglifoak, Errolanen zaldiaren aztarnak, erreka baten bidea desbideraketa (Quiroga, Lugo) eta eguneko argiaren luzapena musulmanen kontrako guda garaitzeko. Beste kondaira baten arabera Nahiaran (Errioxa) Ferragut eta Errolanen arteko borroka gertatu zen (Sainz, Elvira 2007, orr 45). Errioxan “Poyo de Roldán” toki dugu, bertan borroka omen zen. Borroka honen oroigarria dugu Ochanduriko Concepción elizako kapitela batean eta Navarreteko San Juan de Acre baselizako aztarnen artean, egun hile-ri bihurturik. Frantzia: Rocamadourreko Errolanen ezpata, Chartreseko Katedralean Orreagako guduaren irudia, Alemania: Bremen, Quedlimbrug kaleko bi irudi erraldoietan. (Joan Borja). Berririo toponimo eta kondaira gehiago Alacanten eta Cartagenan aurkitzen dugu, “Monte Roldán” eta bertan dagoen gotorlekua “Bateria de Roldán” (Cartagena, Murcia) eta Benidormeko “Coltellada de Rotllà”. Joan Borjak (2005) “Llegendes del sud” Edicions del bulent (orr. 74-77) liburuan Marina Altako Puigcampana mendian, Benidormen, Errolanen kondaira jasotzen du. *La coltellada de Rotllà* historia erromantikoa Puigcampanaren mendiko itxura berezien sorrera azaltzen du bai eta Benidormeko irlak ere. Lehenagotik ere beste egile batzuek jaso dute kondaira bera Martinezek (1927-1929) eta Ruiz Mateok (1965) (Ikusi “Llegendes del sud” liburuak dakarren bibliografian).

Tokiz tokiko Errolanen kondairen bilketa egitea interesgarria izan liteke aski aberatsa suerta daitekeelako.

¹⁷ **Euskal Herriko mapa.** Hemen erraldoein presentziak azaltzen dira. Sansonen kasu guztietan botatako harriekin lotuta dago. Errolanen kondaira batzuetan lotuta azaltzen da jaurtiriko harriekin eta beste batzuetan, berriz, gora-behera geografikoekin edota kondairekin (Ikusi Errolan 15). Jentilen presentziarekin jaurtiriko harriekin loturik dago edo gora-behera geografikoekin jarraian aipatzen den bezala.

LEZAUN ETA IBIRIKUKO SANSONEK BOTATAKO HARRIA
ETA ABARTZUZAKO LAS CALVAS DE SANSON

Mitologiaren aldetik gure hipotesia sendoago egiteko Azkoako zonaldeko ahozko tradizioari erreparatu behar diogu. Sansonarriaren kondaira bizi-rik gorde da Lezaun eta Ibiriku herrietako biztanleen memorian. Bi herri hauek Azkoaren mugakideak dira iparraldetik. Barandiaranek jaso zuen Lezaun eta Ibiriku artean hiru harri zutita daudela eta harririk handiena Sansonek botatakoa dela diote. Lezaungo Argandoñak¹⁸ etniker inkestaren bidez lorturiko datu gehiago eskaintzen digu gai honi argitasuna emanaz. Sansonek jaurtiriko harria El Tángano lur eremuan kokaturik dago, hain zuzen ere, Lezaun, Ibiriku eta Abartzuza herriek muga egiten duten tokian bertan. Sansonen harriari “La txila” deitzen diote eta Argandoñaren arabera harri landua da. Sansonek Frantziako mugatik botatako harria omen da. Honetaz gain Argandonak dio Abartzuzan Las Calvas de Sanson toki izena dagoela. Han bi harri natural eta erraldoi daude. Batzuen ustez mairuek botatakoak eta beste batzuen ustez, ordea, Sansonen abarketan sarturiko harriak omen dira. Azken ezaugarri hau Ioar eta Jurramendian errepikatzen da baina kasu honetako protagonista ez da Sanson¹⁹.

Lezaungo kondairak XX. mendean jasotakoak dira baina mendez mendez iraun duten itxurako kondairak dira. Harrigarria bada ere Nafarroako toponimia ofizialean ez dugu Sanson hitza aurkitzen, kasu bakar batean soilik, Izaban “Borda de Sanson” baina ez dakigu gure kondairarekin lotura duentz. Argandoñak egindako lana bezalakoak Nafarroako geografia osoan gehiago egin izan balute datu gehiago izanen genituen Sansonarrien kondairari eta kondairak izan ditzakeen bertsioei buruz.

Jentilarria.


Orozko, Arrankudiaga (Jentilen boloak), Ziortza-Bolivar, Soraluze, Mutriko (Jolas pilota), Bergara, Elosua, Zerain, Urdiain (Jentilen boloak), Dorrao, Zaldibia **Barandiaran** (2003) orr. 99-101. Mañaria (Jentilarriak eta kobazuloak), Orozko (Jentilen jolas pilotak), Markola harkaitza (Ziortza), Ataun **Barandiaran** (1997) orr. 312-314.

-Harriak ez diren Jentil izenarekin beste gora-behera geografiko batzuk:

Orozko, Leitza eta Egin (Jentilzulo, leizea); Ispaster (Jentilkoba), Bidania (Basainzulota), Mutriku (Jentiletxe kobazuloa), Berastegi (Beraun), Ataun (Hartaste, jentilbaratza), Zerain (Arrola meategia), Muxika, Altzania mendia, Ondarroa, Markina, Elgeta, Antigua Zumarraga (Atean dagoen harria), Oñati (Jentiletxe tontorra), Opakua, Zurbano, Urdiain, Ataun (Jentilbaratza) eta Oiartzun (Elizak), Arano, Ataun, Aralar (Trikuharriak), Idiazabal (Etxe eraikitzailea, trikuharria). **Barandiaran** (2003) orr. 99-101. Elduain (Jentillen baratza), Bermeo (Jentilatxeta malkarra), Gorliz (Jentilbaso tontorra), Plentzia (Jentilbaso tontorra), Okondo (Jentillen haizuloa), Legazpi (Jentiletxe tontorra, Jentillen bolalekua), Arrigorriaga (Jentil putzua, idoia), Urnieta (Tximistako jentil kanposantuak harrespila), Orozko (Jentilzulo, kobazulo eta erreka) (**Euskadi.net**).

¹⁸ ARGANDOÑA (1994).

¹⁹ MARIEZKURRENA, D. (2004), *Ioar y Montejurra*, orr. 279.



Mapa 4: Gran Enciclopedia Navarratik hartuta. Azcona

ERROLANEN KONDAIRA BAT IDATZITA LIZARRAKO ERROMANIKOAN

Sansonarriaren mitoa ez da arte erromanikoan idatzi eta irudikaturik dagoen herri kondaira bakarra. Azkoatik 15 kilometrora, Lizarrako Nafarroako errege-erreginen jauregian Errolan eta Ferraguten arteko borrokaren irudiak ditugu. Irudi nagusiaren goiko aldean honako inskripzio bat ikus dezakegu: FERA/GUT MARTINES/ ME FECIT Y ROLLAN/ DE LOGROÑO²⁰. Interpretazioan ez-bai batzuk badaude ere aditu gehienek onartzen dute esaldian jarrita dagoe-

²⁰ MARTINEZ DE AGUIRRE (2008). I *Estella/Lizarra* orr. 529.

na dela, alde batetik harginaren izena “Martines de Logroño” eta bestetik kondairaren protagonistak “Errolan eta Ferragut”.

Kasu honek Azkoako inskripzioaren hipotesia indartzen duelakoan gaudela Azkoakoa ez baita kasu bakarra. Lizarran gertatzen den moduan Azkoan ere kondairaren izena modu adierazkorran agertzen zaigu, agian etorkizuneko belaunaldiei mezua hobeki helarazi nahian.

Erroldan eta Ferraguten arteko borrokari buruzko irudi oso antzekoak aurki ditzakegu Ochanduri eta Navarreteko (Errioxa) eliza erromanikoetan, baina kasu hauetan ez dago inolako inskripziorik.



Argazkia: Errolan eta Ferraguten arteko borrokaren pasarte bat. Goiko aldean argazkian zailtasunez ikus daitezkeen pertsonaien izenak.

ONDORIOAK

Gure hipotesiaren arabera irudiaren esanahaia euskararen laguntzaz argi geratzen da. Artikulo honetan Ruiz Maldonado eta Botok sorturiko teoriarekin bat egin nahi dugu Sansonen irudia dela baieztatuz, baina ñabardura batekin, hots, Azkoan agertzen zaigun Sansonen kondaira euskal kondaira da. Hipotesi hau baieztatzeko hainbat argudio erabili nahi izan ditugu eta horretarako hainbat arlo aztertzen saiatu gara.

Gure ustez argi dago idatzita dagoen izena SANSO hARRIA dela. Ikuspuntu filologikotik oztopo bat topatzen dugu gure hipotesia baieztatzeko. Sanso ez da Sanson izena, bederen ez biblian agertzen dena. Hala ere izen konposatua da, Sanson gehi harria, eta beharbada horregatik Sanson izena ez dago n-z idatzirik. Horretan ere harginen alfabetizazioaren faltak ere bere eragina izan zezakeen. Zuburuan izkribua agertzea ez da hain arraroa eta Azko-

atik gertu, Lizarran, Errolan eta Ferraguten kondairaren izenak idatzita aurkitzen ditugu, ikusteari jakinarazteko nortzuk diren aurrean dauden pertsonaiak. Gure kasuan gauza bera gertatu da. Harginaren asmoa zen zuburuan zegoena jendeari argitzea bertako erraldoia zela. Filologia ikerketari jarraituz harria hitza h-z agertzeak ez luke arraroa izan behar, ikusi dugunez garai hartan bere presentzia Euskal Herriko mendebaldean arrunta baitzen.

Azterketa artistikoaren ildotik jarraituz irudiak egiten digun keinu bereziaren bidez pertsonaia nor eta zer den adierazten digu. Arte adituaren interpretazioarekin bat gatoz. Keinuaren bidez jakin dezakegu gure pertsonaia itsu dagoela. Beraz Bibliako Sanson dela uste izateari oso egokia deritzogu, are gehiago ilerik gabe egonda. Eta azkenik izkribua esferan bertan egiteak zerikusi handia dauka euskal kulturako sansonarriarekin, esfera bera erraldoiak botatzen duen harria baita, Sansonarria hain zuzen ere.

Gure izkribua argitzeko bidean azterketa kulturala ere jorratu dugu eta jakin badakigu zonaldeko hizkuntza nagusia euskara zela, hau da herritar gehienak euskaldun elebakarrak zirela. Oraindik XIX. mendean Deierriko euskera bizi bizirik zegoen²¹. Sansonarriaren Euskal kondaira egoteak irudiaren esanahia ulertzen laguntzen gaitu. Izan ere Azkoako elizatik gertu sansonen eginkizuna memorian gordea izan da. Ondoko herrietako arkaitz batzuen sorrera Sansonen ardura izan omen zen. Azkenik irudiak eskaintzen duen balore morala da herritarrei gogoraraztea zeintzuk diren fedearen galtzearen arriskuak, hala nola, herria edo herritarren beraien suntsiketa. Honengatik gure ustez sansonarriaren esanahia bat dator elizan kokaturik dagoen irudi multzoak irakatsi nahi duen mezu moralarekin. Animaliak, animali fantastikoak, bibliako pertsonaiak, zaldunak eta gizakien irudiak elkarrekin agertzen dira Erdi Aroko mezu kristauak zabalduz. Azken finean harriak erlijio paganoen ikurrak dira eta gure iritziz, Sansonen irudiaren bidez, landa eremuetan kristautasuna bultzatu nahi izan zuten.

Sanson harri jaurtitzaileren kondairaren eragina ere Pirinion barrena zabaldua egon da, Errolanena bezala. Badirudi herri imaginarioan itxura bitxiko mendiak, harri bereziak eta batik bat menhiren edo monolitoen presentzia azaltzeko nahiko erabilgarria izan dela Sansonarriaren kondaira. Ziu-rrenik erlijio kristauari loturik dauden pertsonaia bibliko eta historiko hauek antzineko sinismen paganoak ordezkatzeko baliogarriak izan ziren.

Mila esker aunitz

Joan Borja i Sanzi Errolani buruzko datuak eskuzabaltasunez emateagatik. Era berean Pello Iraizoz, David Mariezkurrena, Koro Arraiza, Aitor Arana eta Jon Kea-neri.

²¹ JIMENO JURÍO, J. M., orr. 208.

BIBLIOGRAFIA

Artea

- ACELDEGUI APESTEGIA, Alberto (2008), *Atlas del románico de Navarra I*, “Azcona”.
- BIURRUN Y SOTIL, T. (1936), *El arte románico en Navarra o las órdenes monacales, sistemas constructivos y monumentos cluniacenses, sanjuanista, agustinianos, cistercienses y templarios*, Pamplona.
- BOTO VARELA (2000), *Ornamento sin delito. Los seres imaginarios del claustro de Silos y sus ecos en la escultura románica peninsular*, Silos.
- FERNANDEZ-LADREDA, C., MARTINEZ DE AGUIRRE, C. J., MARTINEZ ALAVA (2002), *El arte románico en Navarra*, Gobierno de Navarra (2005, 2 argitalpena).
- GARCÍA GAINZA, M. C. eta beste batzuk, (1996), *Catalogo monumental de Navarra 2***. *Merindad de Estella*, “Deierriko Ibarra”.
- MARTINEZ DE AGUIRRE, Javier (2008), *Atlas del románico de Navarra I*, “Estella-Lizarra”. *Románico* www.romanicoennavarra.info.
- RUIZ MALDONADO (2000), *Actas del Simposio del Santo Domingo de la Calzada 29 al 31 de enero de 1998*, “La cabecera de la catedral calceatense y el tardorrománico hispano. La figura humana en la escultura de la catedral vieja de Salamanca”, Santo Domingo de la Calzada.
- RUIZ MARTIRENA, Juan José (1990), “Azcona”, *Gran Enciclopedia Navarra*, CAN.

Mitologia

- ÁLVAREZ PEÑA, Alberto (2006), *Mitología cantabra*, “Picu Urriellu”, (2004), *Mitología gallega*, “Picu Urriellu”.
- AMADOR JIMÉNEZ, Fabián (2008), *Cuentos maravillosos de un gitanico navarro*, Pamiela.
- ARGANDOÑA, Pedro (1994), *Leyendas y cuentos de Lezaun (Navarra)*, Cuadernos de Sección Antropología-Etnografía II. (Interneten)
- BARANDIARÁN, Jose Miguel (1972-1985), *obras completas*, Bilbao, 23 lib. (Lehenengo bost liburukak)
- (1988), *Mitos del pueblo vasco*, Donostia, Gipuzkoako Kutxa.
- (1997), *Mitología del pueblo vasco*, Etor-Ostoa, 2. edizioa.
- (2003), *Diccionario de mitología vasca*, Txertoa, 2. edizioa.
- BORJA SANZ, Joan (2005), *Llegendes del sud*, Edicions del Bulent.
- BRIGGS, Katharine (1995), *Diccionario de las hadas*, Alejandría.
- DUESO, José (2000), *La primitiva religión de los vascos*, El Txoko de Josetxo, 2º edizioa.
- (1986-1994), *Mitos, creencias y costumbres*, I. eta V. liburukak, Lur argitaletxea.
- GARMENDIA LARRANAGA, Juan (1994), *Apariciones, brujas y gentiles. Mitos y leyendas de los vascos*, (2007ko bertsioko digitalizatuta) (Interneten eskuragarri).
- GUTIERREZ LERA, Chema, (1999), *Breve inventario de seres mitológicos, fantásticos y misteriosos de Aragón*, Zaragoza.
- HARTSUAGA, Juan Ignacio (2004), *Euskal mitologia konparatua: jentilen akabera*, Gaiak zbkia. 35.
- MARIEZKURRENA ITURMENDI, David (2004), *Mirafuentes. Estudio etnográfico*, Lamiñarra.
- MARLIAVE, Olivier de (1995), *Pequeño diccionario de mitología vasca y pirenaica*, Alejandría.
- MARTINEZ SAN CELEDONIO, F. M. (1978), *El molino de Sansón. Calaborra milenaria. Leyendas e ilustres*, Calahorra.
- MARTOS NUÑEZ, Eloy (2001), *Álbum de mitos y leyendas de Europa*, Colección álbumes de tradiciones populares.
- MASSINO IZZI (2006), *Diccionario ilustrado de los monstruos. Ángeles, diablos, ogros, dragones, sirenas y otras criaturas del imaginario*, Alejandría.
- MUÑOZ, Juan Carlos; RAMIREZ, Mar (2000), *Euskal Herriko toki miresgarriak. Lugares mágicos de Euskal Herria*, Sua edizioak.
- PEÑA SANTIAGO, Luis Pedro (1999), *Relatos, leyendas y tradiciones populares del País Vasco*, Txertoa.
- Piriniotako Errolan tokiak*. www.mitcat.net/gegants/index.htm.
- SAINZ, M^a Inés, ELVIRA, Ángel (2006) “León con alas de mariposa. 100 viejas historias de Tierra Estella.” *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, nº 81.
- SATRÚSTEGI, José María (1980), *Mitos y creencias*, Egin Biblioteca.

Arkeologia

- ERKOREKA, Antón (1995), "Catálogo de huellas de personajes míticos en Euskal Herria", *Munibe*, 47, orr. 227-252.
- MAYORAL PASCUAL, Pilar; GARCÍA RUIZ, Pedro, PASCUAL; GONZÁLEZ, Hilario, "Leyenda y megalitismo en el entorno de peña Isasa (La Rioja)" *Altza, Hautsa Kenduz* VII, 5 (Interneten eskuragarria).
- PENALVER, Xabier (1983), "Estudio de los menhires de Euskal Herria", *Munibe*, 35, orr. 355-450 (Interneten eskuragarri).
- Valdeolako menhirak <http://es.geocities.com/reinosilla/docs/menhires.htm>

Toponimia

- Aragoia www.toponimiaaragonesa.org. Toponimia aragonesa
- Euskadi www.euskara.euskadi.net. Toponimia-euskara-Gobierno vasco-Euskadi.net
- JIMENO JURIO, J. M. (1990-1994) (zuzendaria), *Nafarroako toponimia eta mapagintza-Toponimia y cartografía de Navarra*, Pamplona, Nafarroako Gobernua. 59 lib.
- Nafarroa www.toponimianavarra.tracasa.es. Euskarabidea. Nafarroako Gobernua. Nafarroako toponimia ofiziala.

Euskara

- EUSKALZAINDIA (1977), *El libro blanco del euskera*, Real Academia de la lengua vasca.
- EUSKALZAINDIA (1998) Gorrotxategi Nieto, M. (Koordinatzailea), *Nomenclátor de apellidos vascos. Euskal deituren izendegia*.
- ELHUYAR HIZTEGIA (1996) (Interneten).
- JIMENO JURIO, J. M. (1997), *Navarra historia del euskera*, Txalaparta.
- VILLASANTE, Luis (1980), *La h en la ortografía vasca*.

Erljioa

- ELIZA KATOLIKOAREN BIBLIA.

LABURPENA

Sansonarriren kondaira Azkoako Santa Katalina basilizako irudi batean

Artikulu honetan Nafarroako Azkoako basilizako apaindutako zuburu batean dagoen "SANSO hARRIA" izkribu bereziari hipotesi argigarria ematen saiatzen da. Interpretazioa euskararen argitan egiten da, Erdi Aroan zonaldeko hizkuntza naturala. Irudia euskal mitologiakoa da, hain zuzen ere Bibliako asmo gaiztoko Sanson gihartsua harri erraldoi jaurtitzailerik bihurturik. Azkoako sansonarra euskal mitologiako panteoiko irudi eta idatzi historiko bakarretariko bat da.

Gako hitzak: Sansonarra, Azkoa, mitologia, Errolan, Jentikal, Erreldoiak.

RESUMEN

La leyenda de la piedra de Sanson en una imagen de la ermita de Santa Catalina de Azcona

En este artículo se intenta aportar una hipótesis explicativa de la curiosa inscripción "SANSO hARRIA" que se encuentra en un canecillo decorado de la ermita de Santa Catalina de Azcona (Navarra). La interpretación se realiza bajo el prisma cultural vasco, lengua natural de la zona durante el periodo medieval. La imagen pertenece a la mitología vasca, en concreto se trata de Sansonari la leyenda del bíblico y maléfico forzado convertido en lanzador de enormes piedras. El Sansonari de Azkona es una de las escasísimas imágenes y escritos históricos atribuidos al panteón mitológico vasco.

Palabras clave: Piedra de Sanson, Azcona, mitología, Roldán, gentil, gigantes.

ABSTRACT

The rock of Sanson's legend in the hermitage of Santa Catalina of Azkoa

This article attempts to give a hypothetical explanation of the curious inscription "SANSO hARRIA" which can be seen on an ornamental stone in the hermitage of Santa Catalina of Azkoa (Navarra). The interpretation is made from Basque cultural perspective, as Basque was the spoken language of the area during the mediaeval period. The image belongs to Basque mythology and specifically relates to the Sansonari the legend of the biblical evil strong man who became a thrower of enormous rocks. The Sansonari of Azkoa is one of the very few historical images and writings attributed to the pantheon of Basque mythology.

Key words: Rock of Sanson, mythology, Roland, gentile, giant, Navarre.